


Euskal AEko Merkataritzako salmentak % 1,4 handiagoak izan dira 2021eko hirugarren hiruhilekoan aurreko urtean baino

Urteko metatuan, merkataritzako salmentek % 7,2ko hazkundera izan dute

Merkataritzaren sektorean (hau da, *Handizkako merkataritza*, *Txikizkako merkataritza* eta *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa*) % 1,4 igo dira salmentak urte artean, prezio konstanteetan eta behin kenduta egutegi-eraginak, 2021eko hirugarren hiruhilekoan, Eustatek landutako datuen arabera. Salmenten urteko lehenengo hiru hiruhilekoetan metatutako gehikuntza % 7,2koa izan da.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, urtaroen eragina kenduta, salmentak % 0,5 igo dira 2021eko hirugarren hiruhilekoan.

Merkataritzako indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)



Merkataritzaren barruan, salmenta errealeen urte arteko bilakaera negatiboa izan da, bai *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan* (% 17,0), bai *Txikizkako merkataritzan* (% 2,0). *Handizkako merkataritzan*, aldiz, % 8,1eko igoera erregistratu da 2020ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Hiruhileko arteko terminoetan, hiruhileko honetako salmentak % 0,5 gehitu dira. Sektoreei dagokienez, *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan* (-% 1,1) eta

Txikizkako merkataritza (-% 0,5) salmentek behera egin dute; *Handizkako merkataritza*, berriz, % 0,7ko igoera izan da.

Euskal AEko zerbitzuen koiantura-indizea. Merkataritza. Prezio finkoak. Behinbehineko datuak. III/2021

	h / h-4	h / h-1	A (h) / A (h-4)
INDIZE OROKORRA	1,4	0,5	7,2
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-17,0	-1,1	4,0
Handizkako merkataritza	8,1	0,7	10,6
Txikizkako merkataritza	-2,0	-0,5	3,8
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	0,5	0,2	9,6
Bizkaia	1,3	0,2	6,8
Gipuzkoa	1,9	1,3	6,5
ENPLEGUA	1,9	1,0	-0,3

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiantura-indizea

Urte arteko alderaketa eginik, salmentak hiru Lurraldeetan hazi dira. Gipuzkoak izan du igoerarik handiena (% 1,9), gero Bizkaia (% 1,3) eta, azkenik, Arabak (% 0,5), aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2021eko hirugarren hiruhilekora arteko kopuru metatuan, ikusten da Araba dela hazkundearen buruan (% 9,6), gero Bizkaia dator (% 6,8) eta, azkenik, Gipuzkoa (% 6,5).

Euskal AEko *Merkataritzako* langile okupatuen indizea % 1,9 igo da 2020ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, eta % 1,0 aurreko hiruhilekoaren aldean.

INFORMAZIO OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espediente (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enplegatuaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, hirugarren hiruhilekoko indizea % **95,94ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62